

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua edonor kontsumitu dezaken arren, 14 urtetik gorakoentzat gomendatzen dugu. Izan ere, adin txikiagokoek ez dute erabiltzeko beharra beraien gurasoekin sartu eta irteten direlako etxetik normalean. Beraz, gure produktua bereziki nerabeentzat, helduentzat eta adin handikoentzat zuzenduta dago. Hauek izango dira gure bezero garrantzitsuenak.

Beste alde batetik esan beharra daukagu, gure produktua funtziona dezan mugikorra edukitzea beharrezkoa dela. Hemen aplikazio bat instalatuta eduki behar dugulako, *Security*. Hain zuzen, gure atea zabaltzeaz edo ixteaz arduratuko dena. Eta galdetuko zarete; eta mugikorrik ez duenak? Ez dute edukiko zuek eskaintzen ari zareten produktua kontsumitzeko aukerarik?

Baina konturatuko zinateenez gaur egun, zeinek ez du mugikorrik? Kalera irtetzea besterik ez da behar edonor mugikor bat gainean daramatzala ohartzeko. Baina era berean, lasai!! Mugikorrik gabe oraindik ondo bizi denarentzat, edo konturatu gabe mugikorra edonon utzi duenarentzat ere, hau da, arretagabeenetarako; beste bide bat asmatu dugu!! Sentsoreaz eta aplikazioaz aparte, nahi dugun atea zabaltzeko txartel bat sortu dugu. Era berean ate horrek sentsorea txertatuta eta konektatuta duelarik. Honekin gure bezeroari erabateko askatasuna eta segurtasuna eskainiko dizkiegu. Eta ez dute izango ardurarik.

Honetaz aparte, txartela eraikin handietan erabiltzeko aukera ematen dio gure bezeroari. Ala nola ospitaleko langile zein garbitzaileentzat edo kartzeletako guardia zibilentzat edo ikastetxeetan edo edozein enpresatan txikiak edo handiak izanda. Honen bidez langileak ez dute zertan bulego edo dena delakotik irtetzen diren bakoitzean, atea kiskeaz ixteaz edo zabaltzean arduratu behar. Modu honetan erosoago ibiliko dira langile hauek enpresatik edo lan egiten duten eraikinetik mugitzerako orduan.

Eta lasai!! Ekonomikoki oso ondo ez dabilen jendean ere pentsatu dugu. Txartela galtzen edo apurtzen bazaie ez dute zertan kezkatu behar. Beste txartel bat bidaliko zaie dohainik eta automatikoki anulatu ahal izango dute. Gainera, bigarren aldi batez hau gertatzean txartelaren prezioari %50-a egingo zaio. Beti bezeroen hobe-beharrei begira.

Gainera txartelaren prezioa sentsorearen prezioarekin batera sartzen da. Nahi izanez gero hau erosteko behartuak ez egon arren. Hau da, sentsorea eta txartela banaka eros daitezke. Baina eskaintza ezin hobea dela argi eta garbi uzten dugu. Beraz, biak batera erostea gomendatzen dugu.

Ematen ditugun abantaila guzti hauek gure produktua erakargarria egiten dute. Eta kontsumitzaileen erosteko nahia sortzen dute. Izan ere, biztanlearen gehiengoak du erosteko aukera.

